

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO


SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernua eta DGT elkarlanean ariko dira trafikoko-istripuetako biktimei arreta integrala emateko

Morrás kontseilariak eta DGTren zuzendari nagusiak lan-bilera izan dute gaur arratsaldean Nafarroako jauregian

Miércoles, 03 de octubre de 2012

Lehendakaritzako, Justizia eta Barneko kontseilari Javier Morrás Iturrimendi-k eta [Trafikoko Zuzendaritza Nagusia](#)ren (DGT) zuzendari nagusi María Seguí Gómez-ek bilera bat egiten dute gaur arratsaldean Nafarroako jauregian. Bilera horren helburua Nafarroako Gobernuaren eta DGTaren arteko elkarlana aztertzea izan da trafikoko-istripuetako biktimei arreta integrala emateko.



María Seguí, Morrás kontseilaria eta Barneko zuzendari nagusi Francisco José Fernández.

Bileran ere parte hartu dute Barneko zuzendari nagusi Francisco José Fernández Elizalde-k eta DGTren trafikoko-istripuen biktimen alorreko Koordinazio Unitateko buru M^a José Rodríguez de Armenta-k.

Bileran Morrás kontseilariak eta Seguí zuzendari nagusiak adostu dute, alde batetik, esku-hartze integraleko prozedura bat sortzea, eta bestetik, jarduteko proiektu pilotu bat ezartzea, biktimak dauden trafikoko-istripuen kasuetan Espainiako gainerako lekuetarako erreferentzia izango dena.

Horretarako, erakundeen arteko akordio bat sinatzea proposatu da Foru Komunitatean jarduten duten administrazioen artean biktimak dauden trafikoko-istripu bat gertatzen denean. Administrazio horiek dira: Nafarroako Gobernua, Lehendakaritzako, Justiziako eta Barneko eta Osasuneko departamentuen bidez; Justizia Departamentua; eta Nafarroako Gobernuaren mende dauden zerbitzuak.

Akordio hori honako honetan oinarritzen da: parte har dezaketen administrazioaren zerbitzu eta unitateak asko diren trafikoko-istripu baten aurrean (biktimekin), beharrezkoa da istripuaren eta haren ondorioen kudeaketa integrala egitea. Ez soilik hasierako jardura materialetik (suhiltzaileak, trafikoko polizia, osasun-arreta...), baita ondoren ere (biktimei laguntza psikologikoa, juridikoa eta abar eskainiz).